

# Plan de Gestión de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco

**2003-2006**

**Euskal Autonomia Erkidegoko  
Hondakin Arriskutsuak  
Kudeatzeko Plana**

*aurrera doan* **herria**

**un país** *en marcha*

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LURRALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DE  
TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

**Edita:**

IHOBE, Sociedad Pública de Gestión  
Ambiental del Departamento de Ordenación  
del Territorio y Medio Ambiente

**Diseño:**

Dual XJ. Comunicación & Diseño

**Traducción:**

Elhuyar

© IHOBE 2003

**Depósito Legal:** BI-XXXX-03

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu  
eta Ingurumen Saileko Ingurumena  
Jarduketarako Sozietate Publikoak, IHOBE

**Diseinua:**

Dual XJ. Comunicación & Diseño

**Itzulpena:**

Elhuyar

© IHOBE 2003

**Lege Gordailua:** BI-XXXX-03



**Plan de Gestión de Residuos  
Peligrosos de la Comunidad  
Autónoma del País Vasco**

**2003-2006**

**Euskal Autonomia Erkidegoko  
Hondakin Arriskutsuak  
Kudeatzeko Plana**

<b>1. PLAN 2003. PRESENTACIÓN</b>	<b>6</b>
<b>2. RESUMEN DEL PLAN DE GESTIÓN DE RESIDUOS ESPECIALES, 1994-2000</b>	<b>10</b>
2.1. <u>Ámbito de aplicación</u>	10
2.2. <u>Principios estratégicos</u>	10
2.3. <u>Características del inventario. Objetivos de generación y tratamiento</u>	11
2.4. <u>Infraestructuras seleccionadas</u>	13
2.5. <u>Otras herramientas</u>	14
<b>3. SITUACIÓN AL CIERRE DEL PLAN 1994 Y BALANCE</b>	<b>15</b>
3.1. <u>Contexto socioeconómico</u>	15
3.2. <u>Datos de partida para el nuevo Plan: inventario de 1998</u>	16
3.3. <u>Análisis comparativo con las previsiones del Plan 1994-2000</u>	18
<b>4. ¿DÓNDE ESTÁN LOS PRINCIPALES CAMBIOS DEL PLAN 2003 RESPECTO AL PLAN 1994?</b>	<b>22</b>
4.1. <u>Principios de Acción para el Plan - Incorporación de Nuevos Principios</u>	22
4.2. <u>Estrategia de Acción</u>	24
<b>5. RESIDUOS PELIGROSOS EMERGENTES - LOS NUEVOS RETOS</b>	<b>31</b>
5.1. <u>Residuos de madera impregnada</u>	32
5.2. <u>Residuos de aparatos eléctricos y electrónicos</u>	32
5.3. <u>Vehículos fuera de uso</u>	33
5.4. <u>Residuos peligrosos de construcción y demolición (Incluida la tierra excavada de zonas contaminadas)</u>	34
5.5. <u>Residuos domésticos peligrosos</u>	35
<b>6. OBJETIVOS Y RESULTADOS ESPERADOS</b>	<b>37</b>
6.1. <u>Residuos peligrosos objeto del anterior Plan (Principalmente industriales)</u>	37
6.2. <u>Residuos Emergentes</u>	41
<b>7. INSTRUMENTOS DE ACTUACIÓN</b>	<b>46</b>
7.1. <u>Infraestructuras de tratamiento</u>	46
7.2. <u>Sistema de información</u>	47
7.3. <u>Instrumentos económicos</u>	48
7.4. <u>Instrumentos legales</u>	49
7.5. <u>Investigación y desarrollo técnico y otros trabajos</u>	50
7.6. <u>Recursos humanos</u>	51
<b>ANEXO I - MARCO JURÍDICO</b>	<b>53</b>
<b>ANEXO II - INVENTARIO DE RESIDUOS PELIGROSOS</b>	<b>58</b>
<u>Generación de residuos</u>	58
<u>Destino de los residuos</u>	58
<u>Importación de residuos</u>	61
<b>ANEXO III - GESTORES DE RESIDUOS PELIGROSOS EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO</b>	<b>62</b>
<u>Recicladores</u>	63
<u>Tratadores-eliminadores</u>	63
<b>ANEXO IV - MONOGRAFÍAS</b>	<b>63</b>
<b>ANEXO V - INCENTIVOS MEDIOAMBIENTALES EN EL IMPUESTO DE SOCIEDADES DEL PAÍS VASCO</b>	<b>64</b>
<b>ANEXO VI - RESUMEN DE OBJETIVOS PRINCIPALES</b>	<b>66</b>
<b>ANEXO VII - INDICADORES DE SEGUIMIENTO</b>	<b>68</b>

<b>1. 2002 PLANA. AURKEZPENA</b>	<b>6</b>
<b>2. HONDAKIN BEREZIAK KUDEATZEKO PLANAREN LABURPENA, 1994-2000</b>	<b>10</b>
2.1. Aplikazio-eremua	10
2.2. Printzipio estrategikoak	10
2.3. Inbentarioaren ezaugarriak. Sortze- eta tratatze-helburuak	11
2.4. Hautatutako azpiegiturak	13
2.5. Beste baliabide batzuk	14
<b>3. 1994KO PLAN-ITXIERAKO EGOERA ETA BALANTZEA</b>	<b>15</b>
3.1. Testuinguru sozioekonomikoa	15
3.2. Hastapen-datuak Plan berrirako: 1998ko inbentarioa	16
3.3. 1994-2000 Planaren aurreikuspenekiko konparaziozko azterketa	18
<b>4. ZERTAN DAUTZAN 2003 PLANAREN ALDAKETA NAGUSIAK 1994 PLANAREKIKO</b>	<b>22</b>
4.1. Planerako jardute-printzipioak - Printzipio berriak bertaratzea	22
4.2. Jardute-estrategia	24
<b>5.- AGERTZEN ARI DIREN HONDAKIN ARRISKUTSU BERRIAK - ERRONKA BERRIAK</b>	<b>31</b>
5.1. Zur inpregnatuaren hondakinak	32
5.2. Aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak	32
5.3. Erabileraz kanpo dauden ibilgailuak	33
5.4. Eraikitze- eta eraiste-lanetako hondakinak (poluitutako inguruneetan induskatutako lurra ere barne)	34
5.5. Etxeko hondakin arriskutsuak	35
<b>6. HELBURUAK ETA AURREIKUSITAKO EMAITZAK</b>	<b>37</b>
6.1. Aurreko Planaren xede ziren hondakin arriskutsuak (industria-hondakinak batez ere)	37
6.2. Agertzen ari diren hondakin berriak	41
<b>7. JARDUTE-BALIABIDEAK</b>	<b>46</b>
7.1. Tratamendurako azpiegiturak	46
7.2. Informazio-sistemak	47
7.3. Ekonomia-baliabideak	48
7.4. Lege-baliabideak	49
7.5. Ikerkuntza eta garapen teknikoa eta beste lan batzuk	50
7.6. Giza baliabideak	51
<b>I. GEHIGARRIA - ESPARRU JURIDIKOA</b>	<b>53</b>
<b>II. GEHIGARRIA - HONDAKIN ARRISKUTSUEN INBENTARIOA</b>	<b>58</b>
Hondakinen sorrera	58
Hondakinen akabera	58
Hondakinen inportazioa	61
<b>III. GEHIGARRIA - HONDAKIN ARRISKUTSUEN KUDEATZAILEAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN</b>	<b>62</b>
Birziklatzaileak	63
Tratatzaileak-Ezabatzaileak	63
<b>IV. GEHIGARRIA - MONOGRAFIAK</b>	<b>63</b>
<b>V. GEHIGARRIA - INGURUMEN-PIZGARRIAK EAE-ko SOZIJETATEN GAINEKO ZERGAN</b>	<b>65</b>
<b>VI. GEHIGARRIA - HELBURU NAGUSIEN LABURPENA</b>	<b>67</b>
<b>VII. GEHIGARRIA - SEGIMENDUA EGITEKO ADIERAZLEAK</b>	<b>68</b>

# 1 . Plan 2003. Presentación

## 2003 Plana. Aurkezpena 1 .

**E**l Plan de Gestión de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2003-2006 (Plan 2003), materializa el mandato que la Ley General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco<sup>1</sup> realiza al Órgano Ambiental de nuestra comunidad, en relación con la elaboración de planes directores de residuos peligrosos y otras tipología de residuos a cuyas directrices deberán someterse las actividades de producción y gestión públicas o privadas que se desarrollen en el ámbito de esta Comunidad.

El Plan 2003 constituye la revisión del anterior Plan (Plan de Gestión de Residuos Especiales de la CAPV 1994-2000), una vez finalizado en el año 2000 su periodo de vigencia.

El Plan 2003 introduce una nueva visión en la gestión de los residuos respecto al plan anterior. Hasta ahora el enfoque se ha orientado hacia los aspectos cuantitativos, asegurando la gestión controlada de todos los residuos peligrosos, impulsando la reducción de su generación y el incremento del reciclaje.

### ■ CALIDAD EN LA GESTIÓN DE RESIDUOS ■

A partir de ahora, la atención se debe centrar en aspectos cualitativos, logrando una mayor calidad en el tratamiento de los residuos peligrosos a través de la mejora en la recogida selectiva y de la utilización de técnicas avanzadas de tratamiento. Con ello se logrará reducir el impacto ambiental y mejorar la eficiencia en la utilización de los recursos contenidos en los residuos.

### ■ LOS RESIDUOS CONTIENEN RECURSOS VALIOSOS ■

En línea con los principios establecidos en la Ley 3/98, en los que prima la reducción de la cantidad y peligrosidad de los residuos y su valorización frente a cualquier forma de eliminación, debemos considerar que una vez

1. Ley 3/98, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco (BOPV 59, de 27 de marzo de 1998)

**E**uskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Kudeatzeko 2003-2006 Planak (2003 Plana) gauzatzen du Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrek gure autonomia erkidegoan ingurugiroaz arduratzen den organoari emandako agindua, hondakin arriskutsuen eta bestelako hainbat hondakinen inguruko bideratze-planak eratzeari buruzkoa. Arteztarau horien arabera jardun behar dute Autonomia Erkidego honetan egiten diren hondakinen produkzio- edo kudeatze-jarduerak, publikoak nahiz pribatuak.

Aurreko Planaren (EAEko Hondakin Bereziak Kudeatzeko 1994-2000 Plana) berrikuspena da 2003 Plana, 2000. urtean utzi baitzion hark indarrean egoteari.

Ikuspegi berria dakar 2003 Planak -aurreko planarekiko- hondakinen kudeaketaz. Alderdi kuantitatiboei eskaini izan zaie orain artean arreta nagusia, hau da, hondakin arriskutsu guztiak kontrolatu, gutxiago sortu eta birziklapena areagotzeari.

### ■ KALITATEA HONDAKINEN KUDEAKETAN ■

Hemendik aurrera, ordea, alderdi kualitatiboei begiratu behar diegu batez ere, eta gaikako bilketari eta tratatze-teknika aurreratuei esker, hondakin arriskutsuen tratamendu-kalitate hobea lortu behar dugu. Ingurumen-inpaktua gutxitzea eta hondakinek dauzkaten baliabideen erabilera eraginkorragoa, horiek dira gure xedeak.

### ■ BALIABIDE BALIOTSUAK EDUKITZEN DITUZTE HONDAKINEK ■

3/98 Legeak finkatutako printzipioei jarraiki -hondakinen kantitatea eta arriskugarritasuna gutxitzeak du hor lehentasuna, eta balorizazioa hobesten da edozein ezabatze-motaren aurretik- honakoa hartu behar dugu ain-

1. Otsailaren 27ko 3/98 Legea, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Orokorra (EHAA, 59. zenbakia, 1998ko martxoaren 27koa).

generados, los residuos deben ser observados como recursos, por lo que es muy importante:

#### ■ SEGREGACIÓN DE MÁS FRACCIONES DE RESIDUOS ■

- **Separar** los residuos peligrosos de las otras corrientes de residuos, con objeto de,
  - reducir la cantidad de los mismos, al limitar esta calificación a la fracción que realmente presenta esta característica, y
  - evitar que los residuos no peligrosos sean clasificados como peligrosos y quede limitado por este motivo su potencial de aprovechamiento.
- **Valorizar** las corrientes de residuos peligrosos, gran parte de los cuales pueden ser reciclados o poseen un alto contenido energético que los hace susceptibles de valorización. Y también, incrementar el reciclaje de los residuos no peligrosos, a lo que una buena gestión de los peligrosos puede ayudar.

#### ■ CORREGIR LA TENDENCIA DE INCREMENTO PROGRESIVO EN LA GENERACIÓN ■

Los retos que tenemos por delante son básicamente:

- cambiar la tendencia de progresivo crecimiento en la cantidad de residuos peligrosos que se genera y
- mejorar la calidad en el tratamiento de estos residuos.

Sigue siendo, así mismo, objetivo prioritario del Plan 2003 la minimización y mejora continua en la gestión de los residuos peligrosos.

#### ■ ATENCIÓN A LAS CORRIENTES PRIORITARIAS DE RESIDUOS ■

La definición del Plan 2003 ha tenido igualmente en cuenta los cambios adoptados por la Comisión Europea y el Consejo en el Catálogo Europeo de Residuos<sup>2</sup> (CER), con nuevas inclusiones de diferentes residuos peligrosos y entradas "especulares" para algunos residuos que hasta ahora no estaban identificados como peligrosos (el mismo residuo será o no peligroso en función de la presencia de determinadas concentraciones de sustancias peligrosas). Concretamente se ha prestado especial atención a los residuos peligrosos presentes en las corrientes prioritarias de residuos de la construcción, de

2. Decisión de la Comisión de 16 de enero del 2001 (2001/118/CE) por la que se modifica la Decisión 2000/532/CE en lo que se refiere a la lista de residuos. Decisión en la Comisión de 22 de enero de 2001 (2001/119/CE) y Decisión del Consejo de 23 de julio de 2001 (2001/573/CE) que modifican la Decisión anterior.

tzat aurrerantzean: sortzen diren une beretik baliabideztzat jo behar ditugu hondakinak. Honenbestez, oso garrantzitsua da:

#### ■ AHALIK ETA HONDAKIN-ZATIKETA ETA BEREIZKETA HANDIENA EGITEA ■

- **Hondakin arriskutsuak gainerako hondakin-multzoetatik bereiztea**, honako helburu honekin:
  - hondakin horien kantitatea murriztea, benetan arriskutsu direnei soilik aplikatuz kalifikazio hori, eta
  - hondakin ez-arriskutsuak arriskutsu gisara sailkatzen ez uztea, horien aprobetxamendu-potentzialtasuna mugatu egiten baitu horrek.
- **Hondakin arriskutsuen multzoak balorizatzea**: horietarik gehienak birziklagarriak dira edo energia-eduki handia daukate; balorizagarriak dira, beraz. Bestetik, hondakin ez-arriskutsuen birziklaketa gehitzea. Lagungarri gerta liteke zeregin horretan hondakin arriskutsuen kudeaketa egokia.

#### ■ GERO ETA HONDAKIN ARRISKUTSU GEHIAGO SORTZEKO JOERA ALDARAZTEA ■

Honako hauek dira gure egungo erronka nagusiak:


- Gero eta hondakin arriskutsu gehiago sortzeko joera aldaraztea eta
- hondakin horien tratamendu-kalitatea hobetzea.

Bestalde, 2003 Planaren lehenetsuneko helburu izaten jarraitzen dute hondakin arriskutsuen minimizazioak eta horien kudeaketaren etengabeko hobekuntzak.


#### ■ ADI EGON LEHENTASUNA DUTEN HONDAKIN-MULTZOEI! ■

2003 Planaren definizioak kontuan izan ditu, bestetik, Europako Batzardeak eta Kontseiluak Europako Hondakinaren Katalogoan<sup>2</sup> (EHK) ezarritako aldaketak: hondakin arriskutsu gehiago biltzea eta orain artean arriskutsutzat identifikatu gabeko zenbait hondakin "ispiluzarrerak" (hondakin bera arriskutsua edo ez-arriskutsua izan daiteke, hainbat substantzia arriskutsuren kontzentrazio jakin batzuen arabera). Arreta berezia egin zaie eraikuntza, aparatu elektriko zein elektroniko eta erabilgarri ez diren ibilgailuen hondakin-multzo nagusietan ageri diren hondakin arriskutsuei. Kudeake-

2. 2001eko urtarrilaren 16an Batzardeak harturiko Erabakia (2001/118/EE), hondakin-zerrendari dagokionez 2000/532/EE Erabakia ordezkatzeko duena. Aurreko Erabakia aldatzen duten Batzardearen 2001eko urtarrilaren 22ko Erabakia (2001/119/EE) eta Kontseiluaren 2001eko uztailearen 23ko Erabakia (2001/573/EE).



**EVOLUCIÓN DESEADA DE LA RELACIÓN ENTRE EL CRECIMIENTO ECONÓMICO Y LA GENERACIÓN DE RESIDUOS**



**HAZKUNDE EKONOMIKOAREN ETA HONDAKIN-SORREAREN ARTEAN LORTU NAHI DEN BILAKAERA**

aparatos eléctricos y electrónicos y vehículos fuera de uso. La mayoría de estos residuos, generados de forma más dispersa y fuera del ámbito industrial, y que pueden representar cantidades significativas exigen una nueva forma de gestión.

La generación de residuos peligrosos es sin duda una consecuencia de la actividad productiva que maneja y transforma materiales y materias primas siguiendo los requerimientos y especificaciones de los productos demandados por el mercado. Una política integral de producto que recoja todos los aspectos de su ciclo de vida, desde su producción y uso hasta su eliminación como residuo, debe ser tenida en cuenta, en línea con la Política de Producción Integrada que la Unión Europea ha comenzado a abordar recientemente en el contexto del VI Programa Comunitario de Acción en materia de Medio Ambiente.

La gestión medioambiental está consolidándose en las empresas vascas, lo cual está suponiendo una minimización y mejora en el tratamiento de los residuos peligrosos, y en especial de las fracciones minoritarias, una gestión controlada a través de gestor autorizado y finalmente una mayor sensibilización por los problemas ambientales, tanto a nivel colectivo como a nivel individual, lo que favorece la colaboración y el interés en el tratamiento correc-

ta-sistema berria eskatzen dute hondakin hauetarik gehienek; industria-sektoretik kanpo eta oso sakabana-turik sortuak dira, eta, batzuetan, kantitate handitan gainera.

Produkzio-jardueraren ondorio da, zalantzarik gabe, hondakin arriskutsuen sorrera: material eta lehengaiak maneiatzen eta eraldatzen dira, merkatuaren eskakizun eta espezifikazioen arabera. Aintzat hartzen hasi beharra dago produktuaren bizi-zikloaren alderdi guztiak (produkzioa, erabilera eta ezabaketa hondakin gisara) kontuan izango dituen produktu-politika integratua, Ingurumen Ekimenerako VI. Komunitate Programaren testuinguruan Europako Batasuna jorratzen hasi berria den Produkzioaren Politika Integratuaren ildotik jarraituz.

Sendotzen ari da ingurumen-kudeaketa euskal enprestatan, eta hondakin arriskutsuen tratamenduan minimizazio eta hobekuntza (gutxiengo diren frakzioena bereziki), kudeatzaile baimenduz kontrolatutako kudeaketa eta, azkenik, ingurumen-arazoekiko sentsibilizazio handiagoa dakar horrek, bai kolektibo gisara bai banan-banaka hartuta. Horrek guztiak erraztu egiten du hondakin arriskutsuak egokiro tratatzeko laguntza eta ardura, 1999-



to de los residuos peligrosos, enmarcado todo ello en el Programa de Promoción de la Gestión Medioambiental 1999-2001. El crecimiento económico todavía tiene un efecto relativo sobre la generación de residuos. El gran reto, a medio/largo plazo, se encuentra en desacoplaren términos absolutos la generación de residuos del crecimiento económico<sup>3</sup>.

Por último, es necesaria la participación en el debate y aprobación de políticas por parte de todos los agentes implicados -Administraciones Públicas, instituciones, organizaciones empresariales y sindicales, organizaciones ambientalistas y ciudadanos. Además, es necesario un esfuerzo compartido en los cambios de hábitos que favorezcan la toma de conciencia a todos los niveles para que el problema de los residuos se aborde desde la prevención, a través del diseño (de productos y procesos), y se incremente su reciclaje y otras formas de valorización.

2001 Ingurumen Kudeaketaren Sustapen Programaren testuinguruan betiere. Ekonomiaren hazkundeak badu oraindik ere eragin erlatiborik hondakinen sorreran. Eta hortxe daukagu, epe ertain/luzean, gure erronka nagusia: oro har, ekonomiaren hazkundera eta hondakinen sorrera termino absolutuetan banantzea<sup>3</sup>.

Azkenik, gai honekiko loturarik duten eragile guztien parte-hartzea beharrezkoa da bai eztabaidan bai politiken onespenean: Administrazio publiko, erakunde, enpresari-elkarte eta sindikatu, naturazaleen erakunde eta herritarrena. Bestetik, ohiturak aldarazteko ere ahalegin bateratua egin beharra dago, maila guztietara zabal dadin kontzientziazioa, hondakinen arazoari prebentzioaren eta diseinuaren (produktu eta prozesuena) ikuspegitik ekin dakion eta areagotu daitezzen haien birziklapena zein bestelako balorizazio-sistemak.

3. El VI Programa Comunitario de Acción en materia de Medio Ambiente para 2001-2010 establece como objetivo una importante disminución de la cantidad de residuos destinados a su eliminación y del volumen de residuos peligrosos producido.

3. 2001-2010erako Ingurumen Ekimenerako VI. Komunitate Programak helburu gisa sortzen diren hondakin arriskutsuen bolumena eta ezabatzearen ondoren hondakinen kopurua asko txikitzea ezarri du.

## 2.

# Resumen del Plan de Gestión de Residuos Especiales, 1994-2000

## Hondakin Bereziak Kudeatzeko Planaren Laburpena, 1994-2000

## 2.

### 2.1. **Ámbito de aplicación**

**E**l Plan de Gestión de Residuos Especiales, 1994-2000 (Plan 1994) contemplaba no sólo el conjunto de residuos peligrosos definidos por el marco normativo aplicable<sup>4</sup> en aquel momento, excluidos los residuos agropecuarios y sanitarios, sino también todos aquellos residuos que, no teniendo dicha calificación legal, no podrían depositarse en vertederos de residuos inertes de acuerdo a lo establecido en la que entonces era Propuesta de Directiva relativa al vertido de residuos.

■ EL PLAN DE 1994 INCLUÍA  
BAJO LA DENOMINACIÓN  
ESPECIALES A RESIDUOS  
PELIGROSOS Y A ALGUNOS NO  
PELIGROSOS ■

Como veremos a continuación, esta incorporación al Plan 1994 de residuos tanto peligrosos como algunos no peligrosos, bajo la denominación común de especiales, obliga ahora a realizar un proceso de homogeneización de estos datos si se quieren comparar con las cifras del último inventario disponible, año 1998, basado ya en el Catálogo Europeo de Residuos consolidado e incorporando únicamente residuos peligrosos.

### 2.2. **Principios estratégicos**

Las medidas propuestas en el Plan 1994 se articulaban a partir de los siguientes principios estratégicos:

- Minimización de los residuos generados y adecuada gestión de los mismos.
- Gestión tecnológicamente avanzada de los residuos que conlleve costes crecientes de eliminación.
- Multiplicidad de soluciones.

4. Ley 20/86, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos. Real Decreto 833/88 que desarrolla el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/86, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos. Catálogo Europeo de Residuos (propuesta de 22 de abril de 1992).

### 2.1. **Aplikazio-eremua**

**H**ondakin Bereziak Kudeatzeko 1994-2000 Planak (1994 Plana), sasoi hartan aplikagarri zen araudiak<sup>4</sup> definitutako hondakin arriskutsuak (nekazaritza eta abeltzaintzakoak eta sanitarioak izan ezik) kontuan hartzeaz gain, besteok ere hartzen zituen: aipatu lege-kalifikaziorik ez zeukaten eta hondakin geldoen zabortegetan uzterik ez zegoen hondakinak, garai hartako hondakinen isurketa-ri buruzko Arteztarau Proposamenak finkatutakoaren arabera.

■ 1994KO PLANAK "BEREZIAK"  
DEITURAPEAN ZEUKAN HONDAKIN  
ARRISKUTSUAK ETA ARRISKUTSUAK  
EZ ZIREN HAINBAT ■

Ondoren ikusiko dugunez, 1994ko Planera hainbat hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsu bildu izanak ("bereziak" deiturapean) datu horiek homogeneizatzen behartzen gaitu orain azken inbentarioko datuekin (1998) alderatu ahal izateko. Azken inbentario hori Europako Hondakinen Katalogo bateratuan zegoen oinarritua.

### 2.2. **Printzipio estrategikoak**

Honako printzipio estrategiko hauen arabera egituratzen ziren 1994 Planean proposatutako neurriak:

- Sortutako hondakinen minimizazioa eta horien kudeaketa egokia.
- Hondakinen kudeaketa aurreratua -teknologia aldetik-, ezabatze-kostu gero eta handiagoak eragiten dituena.
- Konponbide-ugaritasuna.

4. 20/86 Legea, Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko Oinarrizkoa. 833/88 Errege Dekretua, 20/86 Legea -Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko Oinarrizkoa- betearazteko araudia garatzen dena. Europako Hondakinen Katalogoa (1992ko apirilaren 22ko proposamena).


■ OBJETIVOS, PRINCIPIOS Y  
CARACTERÍSTICAS DEL PLAN DE  
1994 ■

- Flexibilidad de las soluciones.
- Fomento de la iniciativa privada en la gestión de residuos e iniciativa pública donde no llegue la privada, pero sin plantearse como una opción definitiva e irreversible.
- Principio de subsidiariedad, entendiéndose que las soluciones deben potenciarse en origen, pasando a niveles superiores, incluso a soluciones de carácter público y ámbito territorial o sectorial, sólo cuando se ha hecho el máximo esfuerzo en el escalón anterior.
- Principio de responsabilidad: "Quien contamina paga".
- Principios de autosuficiencia y proximidad, aplicados de manera flexible y en la medida de lo posible.
- Preferencia ambiental de las soluciones: prevención de la generación, reciclaje, valorización energética y eliminación controlada.
- Participación de los distintos interlocutores políticos, sociales e institucionales para la aprobación y seguimiento de las determinaciones del Plan.

### 2.3. Características del inventario. Objetivos de generación y tratamiento

El inventario de residuos que se presentaba en el Plan 1994, correspondiente al año 1991, fue elaborado siguiendo las directrices marcadas por el grupo de trabajo que estaba preparando en aquel momento el Catálogo Europeo de Residuos. Además, al ser un inventario de residuos "especiales", se consideraron algunas corrientes de residuos no peligrosos de especial interés, pero que no correspondían a residuos peligrosos.

El Catálogo finalmente aprobado y la posterior Lista Europea de Residuos Peligrosos<sup>5</sup> presentaban diferencias notables con aquel borrador. Todo ello obliga a rea-



5. Decisión del Consejo de 22 de diciembre 1994 por la que se establece una lista de residuos peligrosos.


■ 1994KO PLANAREN  
HELBURUAK, PRINTZIPIOAK ETA  
EZAUGARRIAK ■

- Konponbide-malgutasuna.
- Ekimen pribatua bultzatzea hondakinen kudeaketan, eta ekimen publikoa pribaturik ez dagoenean. Dena den, konponbide hori ez da behin-betikoa eta atzerazina.
- Subsidiariedade-printzipioa, hots, konponbideak sorburuan bertan bultzatu behar direla, eta goragoko maila-tara -izaera publikodun edo eskualde nahiz sektoreko konponbideetara- aurreko mailan ahalik eta ahalegin handiena egin denean bekarrik igaro behar dela.
- Erantzukizun-printzipioa: "Poluitzen duenak ordaindu egin behar du".
- Autosufizientzia eta hurbiltasun-printzipioak, malgutasunez eta ahal den neurrian erabiliak
- Konponbideen ingurumen-lehentasuna: sorreraren prebentzioa, birziklapena, energia-balorizazioa eta kontrolpeko ezabaketa.
- Gizarte, erakunde eta alderdi politikoetako ordezkarien parte-hartzea Planaren zehaztapena eta jarraipena egiteko.

### 2.3. Inbentarioaren ezaugarriak. Sortze- eta tratatze-helburuak

1994 Planean ageri zen hondakinen inbentarioa - 1991. urteari zegokiona- une hartan Europako Hondakinen Katalogoa prestatzen ari zen lan-taldearen artzatarauak jarraituz eratu zen. Bestalde, hondakin "berezien" inbentarioa izaki, kontuan hartu ziren hainbat hondakin-multzo guztiz interesgarri, hondakin arriskutsuak ez zirenak, ordea.

Azkenean onartu zen eta ondoren plazaratutako Hondakin Arriskutsuen Europar Zerrendak<sup>5</sup> alde handiak ageri zituzten zirriborro harekiko. 1994 Planean aztertutako



5. Hondakin arriskutsuen zerrenda finkatu zuen 1994ko abenduaren 22ko Kontseiluaren Erabakia.

**Tabla 1.** Inventario del Plan 94 y objetivos para el año 2000, identificando separadamente las cantidades correspondientes a residuos peligrosos.

Destino final	Plan 1994	Objetivos 2000	Plan 1994	Objetivos 2000	Akabera
	Residuos Especiales (ton/año)	Residuos Especiales (ton/año)	Residuos Peligrosos (ton/año)	Residuos Peligrosos (ton/año)	
Valorización	227.083	218.923	194.083	121.923	Balorizazioa
Eliminación	118.355	188.354	76.402	142.354	Ezabapena
No gestión	142.430	–	129.183	–	Kudeatu gabek
<b>TOTAL GENERACIÓN</b>	<b>537.868</b>	<b>407.277</b>	<b>399.668</b>	<b>264.277</b>	<b>SORTUTAKO GUZTIZKOA</b>
	<b>1994 Plana</b> Hondakin bereziak (tona/urte)	<b>2000ko helburuak</b> Hondakin bereziak (tona/urte)	<b>1994 Plana</b> Hondakin arriskutsuak (tona/urte)	<b>2000ko helburuak</b> Hondakin arriskutsuak (tona/urte)	

**1 Taula.** 94 Planaren Inbentarioa eta 2000. urterako helburuak, bereiz identifikatuz hondakin arriskutsuei dagozkien kantitateak.

lizar una identificación separada de los residuos analizados en el Plan 1994 (cuáles son finalmente peligrosos en el CER y cuáles no) y, de esta manera, hacer comparables los objetivos de ese Plan al valorar su cumplimiento como primer paso en la elaboración del nuevo Plan 2003.

Algunas de las corrientes de residuos contempladas en el Plan 1994 pero que no están clasificadas como residuos peligrosos en el Catálogo Europeo son las siguientes:

- Corrientes residuales tratadas como efluentes (aguas cromadas de curtición y aguas fenólicas).
- Corrientes que han sido desclasificadas como residuo y tienen la consideración de producto (ácido clorhídrico puro de fabricación de CFCs y HCFC).
- Residuos no clasificados como peligrosos (tortas metálicas de fabricación de MnO<sub>2</sub> y azufre de desulfuración).
- Residuos inertizados en la propia planta (tortas de gestores).

Una vez detraídas estas cantidades de los objetivos inicialmente planteados en el Plan 1994 se preveía una generación de residuos peligrosos en el año 2000 de 264.277 t/a, de las cuales 121.923 t/a, el 46%, serían residuos valorizados y 142.354 t/a, el 54%, residuos eliminados.

Además de las previsiones de eliminación y valorización de residuos especiales, el Plan tenía como objetivo que todos los residuos fueran gestionados de manera controlada (eliminando el vertido incontrolado) y la creación de una red de infraestructuras que permitiera cumplir el principio de autosuficiencia (necesario a su vez para el cumplimiento del principio de proximidad).

hondakinen identifikazio berezia (zein diren, azkenik, arriskutsuak EHKn eta zein ez) egitera behartu gaitu horrek eta, horrenbestez, Plana bete den balioztatzerakoan konparagarri bihurtzera Plan horren helburuak 2002 Plan berria eratzeko lehen urrats gisara.


Honako hauek dira 1994 Planean ageri diren baina Europako Katalogoan hondakin arriskutsu gisara sailkatuta ez dauden hondakin-multzoetako batzuk:

- Efluente gisara tratatutako hondakin-multzoak (zurra-tze-ur kromatuak eta fenol-urak).
- Jada hondakin gisa sailkatzen ez diren eta produktu gisa onartzen diren hondakin-multzoak (CFCak eta HCFC egiteko erabiltzen den azido klorhidriko purua).
- Arriskutsutzat sailkatu ez diren hondakinak (MnO<sub>2</sub> egiteko erabiltzen diren metal-opilak eta desulfurazio-sufrea).
- Instalazioan bertan geldotutako hondakinak (kudeatzaileentzako opilak).

1994ko Planean hasieran planteatutako helburuetatik kantitate horiek kendu eta gero, 2000. urtean **264.277 t/u-ko hondakin-kantitatea aurreikusten zen, eta horietarik 121.923 t/u (% 46) hondakin balorizatuak lirateke eta 142.354 t/u (% 54) ezabatutako hondakinak.**

Hondakin berezien ezabatze- eta balorazio-aurreikuspenez gain, **hondakin guztiak kontrolpean kudeatzea zuen helburu Planak** -kontrolik gabeko zaborbotatzea amaiazte, alegia- eta autosufizientzia-printzipioa betetzeko bidea emango lukeen azpiegiturasarea sortzea. Azken hori, bestalde, beharrezkoa zen hurbiltasun-printzipioa bete ahal izateko.

## Gestión de residuos peligrosos (descontando cenizas de pirita)



### Hondakin arriskutsuen kudeaketa (pirita-errautsak kenduta)

En este punto debemos indicar que el Plan 1994 inventariaba 150.000 t/a de cenizas de pirita valorizadas, pero que ya en los objetivos para el año 2000 no se consideraban debido a su desaparición por la sustitución de la pirita, como materia prima en la producción de sulfúrico, por azufre de la desulfuración en refinería. Por tanto para conseguir un análisis homogéneo de la situación de partida del Plan, de los objetivos que planteaba y de los resultados alcanzados, es conveniente descontar del inventario inicial este residuo.

#### 2.4. Infraestructuras seleccionadas

Para el cumplimiento de los objetivos anteriores atendiendo al principio de autosuficiencia, el Plan 1994 identificaba las carencias de infraestructuras de gestión en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Para subsanar estas carencias se propusieron una serie de instalaciones que debían ser promovidas o impulsadas tanto por la iniciativa pública como por la privada, siendo estas:

- Depósito de seguridad.
- Vertederos de residuos inertizados.
- BCD (decloración catalítica).
- Valorización de los residuos de ácido clorhídrico procedentes de los decapados.
- Valorización de aceites y disolventes.
- Estaciones de transferencia para la recogida de residuos peligrosos generados en pequeñas cantidades y geográficamente dispersos.
- Regeneración de escorias de segunda fusión de aluminio.

Puntu honi dagokionez, azal dezagun 150.000 t/u pirita-errauts balorizatu inbentariatu zituela 1994 Planak, baina 2000ko helburuetan ez zirela jada ageri. Izan ere, piritaren ordez findegiko desulfurazio-sufrea hasi zen erabiltzen lehengai gisa sulfurikoa sortzeko. Beraz, Planaren abiapuntuari buruzko egoeraz azterketa homogeneorik egiteko kendu egin behar da aipatu hondakina hasierako inbentariotik.

#### 2.4. Hautatutako azpiegiturak

Aipaturiko helburuak autosufizientzia-printzipioaren arabera bete ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketa-azpiegituren gabeziak identifikatu zituen 1994 Planak.

Ekimen publikoak zein pribatuak bultzatu beharreko hainbat instalazio proposatu ziren gabezia horiei aurre egiteko. Honako hauek:

- Segurtasun-depositua .
- Geldotutako hondakinenzako zabortegeak.
- BCD (deklorazio katalitiko).
- Desugerketetako azido klorhidrikoaren hondakinak.
- Olio eta disolbatzaileen balorizazioa.
- Kantitate txikitan eta sakabanatutako eremuetan sortutako hondakin arriskutsuak biltzeko transferentzia-lekuak.
- Aluminioaren bigarren galdaketako zepak berreskuratzea.

- Fabricación de floculante (policloruro de aluminio) a partir de residuos de la producción de CFCs (ácido clorhídrico).
- Revalorización de azufre de desulfuración.

Y otras iniciativas que debían ser estudiadas antes de tomar una decisión definitiva.

## 2.5. Otras herramientas

El cumplimiento de los objetivos de gestión controlada, minimización de residuos y valorización no se fundamentaba únicamente en el desarrollo de nuevas infraestructuras de gestión.

En el Plan 1994 se articularon otros instrumentos que debían impulsar la consecución de los objetivos:

- Incremento de las labores de inspección y control de los productores y de los gestores.
- Organización de la recogida de aceites usados y los establecimientos donde se realiza la pre-recogida de los mismos.
- Sensibilización de los pequeños productores de aceites usados.
- Implantación de buenas prácticas y sustitución de productos en las industrias para la minimización de los residuos y su peligrosidad.

- CFCak (azido klorhidrikoa) produzitzeko hondakinetatik malutzailea egitea (aluminio polikloratua).
- Desulfurazio-sufrearen birbalarizazioa.

Eta behin betiko erabakirik hartu aurretik aztertu behar ziren beste zenbait ekimen.

## 2.5. Beste baliabide batzuk

Kontrolpeko kudeaketa-, hondakinen minimizazio- eta balorizazio-helburuak betetzea ez zegoen soilik kudeaketa-azpiegitura berriak garatzearen esku.

Helburu horiek lortzea bultzatu behar zuten beste baliabide batzuk egituratu ziren 1994 Planean:

- Hondakinen ekoizle eta kudeatzaileak ikuskatu eta kontrolatzeko lanak ugaltzea.
- Olio erabilien bilketa eta horien aurrebilketa egiten den establezimenduen antolaketa.
- Olio erabilien ekoizle txikien sentsibilizazioa.
- Jarduera egokiak ezartzea eta ordezeko produktuak erabiltzea industrian, hondakinak eta horien arriskugarritasuna minimizatzeko.

## 3. Situación al cierre del Plan 1994 y balance

### 1994 Plan-itxierako egoera eta balantzea

3.

#### 3.1. Contexto socioeconómico

**E**l análisis de evolución de la producción de residuos peligrosos no puede realizarse correctamente si no se tiene en cuenta el contexto socioeconómico y la variación de los indicadores macroeconómicos de nuestra Comunidad.


Entre 1995 y 1998, el Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco creció un 23,8%. En cuanto al PIB industrial creció en ese mismo período un 25,8% y el Índice de Producción Industrial (IPI) lo hizo en un 24,8%.

#### 3.1. Testuinguru sozioekonomikoa

**E**z dago egiterik hondakin arriskutsuen bilakaeraren azterketa zuzenik ez badira kontuan hartzen Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguru sozioekonomikoa eta adierazle makroekonomikoen aldaketa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordina (BPG) -prezio konstanteetan-% 23,8 hazi zen 1995 eta 1998 artean. Industriako BPGa, berriz, % 25,8 hazi zen epe berean, eta % 24,8 Industria Ekoizpenaren Indizea (IEI).

#### Evolución del Índice de Producción Industrial en la CAPV (referencia 1995)



Fuente / Iturria: Eustat.

#### EAEko Industria Ekoizpenaren bilakaera (erreferentzia:1995)

Con estos datos la evolución en el período de vigencia del Plan 1994 ofrece cifras de crecimiento económico notable tanto a nivel global como en el ámbito industrial, donde se generaban la práctica totalidad de los residuos contemplados en el Plan.

En el período 1990-1995 la generación total de residuos en los países europeos de la OCDE aumentó en cerca del 10% para un crecimiento del PIB del 6,5% a precios constantes. La correlación entre PIB y cantidad

Datu horiek ikusirik, 1994 Planaren iraunaldian hazkunde ekonomiko nabarmena izan zela adierazten dute zifrek bai maila orokorrean bai industrian. Sektore horretan sortuak ziren, bestalde, Planean ageri ziren hondakin gehienak.

ELGE Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak Europako herrialdeetan % 10 inguru hazi zen 1990-1995 epean hondakinen guztizko sorrera BPGren % 6,5eko hazkundearekiko (prezio konstan-

de residuos peligrosos generados se demuestra con datos de 1995 en los países de la Unión Europea<sup>6</sup>, teniendo ya el Catálogo Europeo de Residuos como patrón de clasificación.

### 3.2. Datos de partida para el nuevo Plan: inventario de 1998

La información cuantitativa que ha servido de base para la elaboración del presente Plan 2003 procede del inventario realizado a partir de la información de gestión de residuos peligrosos correspondiente al año 1998 (ver anexo II). Este inventario es el resultado de los trabajos de análisis y revisión de todos los documentos de control y seguimiento de los movimientos de residuos peligrosos, junto a la información sobre importaciones y exportaciones de los mismos en el citado año y completado con la revisión de las memorias de gestor.

En 1998 se contabilizaron un total de 286.238 toneladas de residuos peligrosos.


teetan). 1995eko datuen bidez frogatzen da Europako Batasunean BPGren eta sortutako hondakin arriskutsuen kantitatearen arteko korrelazioa<sup>6</sup>, eta Europako Hondakinen Katalogoa erabiltzen zen ordurako sailkapen-eredutzat.

### 3.2. Hastapen-datuak Plan berrirako: 1998ko inbentarioa

1998.ari dagokion hondakin arriskutsuen kudeaketaren informazioa oinarri hartuta egindako inbentariotik dator (ikus II. Gehigarria) honako 2003 Plana egiteko erabili den informazio kuantitatibo nagusia. Hondakin arriskutsuen lekualdaketen kontrol- eta jarraipen-dokumentu guztiak, urte hartako haien inportazio zein esportazioei buruzko informazioa eta kudeatzaile-memorien berrikuspena aztertu eta berrikustearen emaitza da honako inbentario hau.

**286.238 tona hondakin arriskutsu zenbatu ziren 1998an.**

### Principales corrientes de residuos peligrosos en la CAPV Inventario 98 (toneladas/año)



### EAEko hondakin arriskutsuen multzo nagusiak 1998ko Inbentarioa (tonak urteko)

6. Environment in the European Union at the turn of the century (3.7. Waste generation and management). Agencia Europea de Medio Ambiente.

6. Environment in the European Union at the turn of the century (3.7. Waste generation and management). Europako Ingurumen Agentzia.



Debe destacarse que la mayor generación de residuos se produce en tres corrientes:

- Polvos de acería: 83.380 t/a (29% del total).
- Soluciones ácidas de decapado: 62.036 t/a (22%).
- Escorias de la 2ª fusión del aluminio: 29.585 t/a (10%).

■ EL 31,5% DE LOS RESIDUOS PELIGROSOS HAN SIDO VALORIZADOS Y EL 68,5% ELIMINADOS ■

Del total de residuos peligrosos el 31,5% (90.146 t/a) se valorizaron a través del reciclaje (81.769 t/a, el 28,6%) o la valorización energética (8.377 t/a, el 2,9%), y el 68,5% (196.091 t/a) se eliminaron, bien a través del vertido (con inertización previa o en depósito de seguridad) o la incineración sin aprovechamiento energético.

■ EL 12,6% DE LOS RESIDUOS PELIGROSOS ELIMINADOS LO FUERON POR GESTORES FUERA DE LA CAPV ■

Del total de residuos inventariados, un 76% (217.343 t/a<sup>7</sup>) se gestionaron dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, mientras que el resto, un 24,2% (69.648 t/a) salieron a gestores de fuera de la Comunidad. Del total de la eliminación de los residuos peligrosos, el 12,65% fue gestionado por gestores de fuera de nuestra Comunidad. Por su parte, la valorización se realizó en cantidades similares tanto dentro como fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Tabla 2).

Honako hiru multzo hauetan sortu zen hondakin gehien:

- Altzairutegietako hautsak: 83.380 t/u (guztizkoaren % 29).
- Desugerketen soluzio azidoak: 62.036 t/u (% 22).
- Aluminioaren bigarren galdaketako zepak: 29.585 t/u (% 10).

■ HONDAKIN ARRISKUTSUEN % 31,5A BALORIZATU EGIN ZEN; % 68,5, BERRIZ, EZABATU ■

Hondakin arriskutsuen guztizkoaren % 31,5 (90.146 t/u) balorizatu ziren birziklapenaren bidez (81.769 t/u, % 28,6) edo balorizazio energetikoaren bidez (8.377 t/u, % 2,9), eta % 68,5 (196.091 t/u) ezabatu egin ziren, bai zabortegira eramanez (aldezturak geldotu ostean edo segurtasun-deposituan) bai energia-eraberritze-erakundeetara gabeko errausketaren bidez.

■ EZABATUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN % 12,6A EAETIK KANPOKO KUDEATZAILEEK EZABATU ZITUZTEN ■

Inbentariora bildutako hondakinen guztizkoaren % 76 (217.343 t/u<sup>7</sup>) Euskal Autonomia Erkidegoan bertan kudeatu zen; gainerakoa -% 24,2 (69.648 t/u)- EAetik kanpoko kudeatzaileen eskuetan jarri zen. Hondakin arriskutsuen guztizko ezabapenari dagokionez, EAetik kanpoko kudeatzaileek kudeatu zuten haren % 12,6. Bestalde, antzeko proportzioan egin zen balorizazioa EAEn eta hemendik kanpora (ikus 2. Taula).

**Tabla 2.** Tipos de gestión según localización del gestor (t/a).

Gestión	GESTOR CAPV	GESTOR NO CAPV	TOTALES	Kudeaketa
Eliminación	171.343 (87,4%)	24.748 (12,6%)	196.091 (100%)	Ezabapena
Valorización	46.091 (51,15%)	44.056 (48,9%)	90.146 (100%)	Balorizazioa
<b>Totales</b>	<b>217.434</b>	<b>68.804</b>	<b>286.237</b>	<b>Guztizkoak</b>
Porcentaje	76,0%	24,0%	100%	Portzentajea
	<b>EAEko kudeatzailea</b>	<b>EAetik kanpoko kudeatzailea</b>	<b>GUZTIRA</b>	

**2 Taula.** Kudeatzailearen kokalekuaren arabeko kudeaketa-mota (t/u).

7. Esta cifra incluye los residuos recibidos por los Centros de Transferencia Vascos, residuos que en gran medida se gestionan fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Estos son principalmente: Residuos hospitalarios (727 t/a), PCBs(682 t/a), baterías de plomo (1.092 t/a) y otros residuos que estos Centros envían a vertederos de seguridad (unas 1.500 t/a).

7. Zenbateko horren barruan EAEko Transferentzia Zentroetara eramandako hondakinak sartzen dira. Hondakin horiek, neurri handi batean, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo kudeatzen dira. Batez ere, ondorengoak dira: Ospitaleetako hondakinak (727 t/u), PCBak (682 t/u), berunezko bateriak (1.092 t/u) eta Zentro horietatik segurtasun-hondakindegietara bidaltzen dituzten beste hainbat hondakin (1.500 t/u inguru).

■ UNA CANTIDAD SIMILAR DE RESIDUOS CON ORIGEN FUERA DE LA CAPV FUE ELIMINADA POR GESTORES DE NUESTRA COMUNIDAD ■

Los gestores vascos gestionaron a su vez 142.321 t/a de residuos peligrosos generados fuera de la Comunidad de las cuales 93.028 t/a se importaron a partir de países europeos fundamentalmente, mientras que el resto, 49.292 t/a, procedían de otras Comunidades autónomas. Prácticamente el 100% de los residuos importados (polvos de acería en su mayoría) fueron objeto de reciclaje para la recuperación de metales. Un 57% de los residuos procedentes de otras comunidades fue también objeto de reciclaje con lo que en total, fueron 121.000 las toneladas de residuos generados fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco que se reciclaron dentro de la misma. Más del 85% de los residuos que generados fuera de nuestra Comunidad han sido gestionados en la misma en el año 1998, fueron destinados al reciclaje<sup>8</sup>.

### 3.3. Análisis comparativo con las previsiones del Plan 1994-2000

La comparación de los resultados del inventario de 1998 con las previsiones del Plan de 1994 muestra una notable mejora debida fundamentalmente a la concienciación y el esfuerzo de todos los agentes implicados.

#### 3.3.1. Generación de residuos

Las previsiones del Plan 1994 en cuanto a generación de residuos en el año 2000 se cifraban en 264.277 t/a. Esta cantidad fue superada, generándose 286.237 t/a en 1998, lo que supuso un incremento sensiblemente inferior al 25% de crecimiento de la producción industrial en el período 95-98 lo cual refleja la favorable implantación de las medidas de minimización propuestas en el Plan.

■ EL INCREMENTO EN LA GENERACIÓN DE RESIDUOS PELIGROSOS HA SIDO SENSIBLEMENTE INFERIOR AL CRECIMIENTO DE LA PRODUCCIÓN INDUSTRIAL ■

Un análisis más detallado de las diferencias sobre las previsiones que se realizaron indica que:

- Se han contabilizado nuevas corrientes de residuos (3.000 t/a) y se han superado las previsiones en cuan-

8. Ver nota 6.

■ EAETIK KANPO EKARRITAKO ANTZEKO HONDAKIN-PORTZENTAJEA EZABATU ZUTEN EAEKO KUDEATZAILEEK ■

Bestalde, EAEko kudeatzaileek Erkidegotik kanpoko 142.321 t/u hondakin arriskutsu kudeatu zituzten, eta horietarik 93.028 t/u Europako herrialdeetatik inportatu ziren batik bat; gainerakoa -49.292 t/u- beste autonomia erkidego batzuetakoa zen. Inportatutako hondakin horietako ia % 100 (altzairutegietako hautsak gehienbat) birziklatu egin ziren metalak berreskuratze-ko. Beste autonomia erkidego batzuetatik ekarritako hondakinen % 57 ere birziklatu egin zen; beraz, EAetik kanpo sortutako 121.000 tona hondakin birziklatu ziren gure erkidegoan. EAetik kanpo sortu eta hemen kudeatutako hondakinen % 85 birziklatu egin ziren 1998an<sup>8</sup>.

### 3.3. 1994-2000 Planaren aurreikuspenekiko konparaziozko azterketa

1998ko inbentarioko emaitzak 1994ko Planeko aurreikuspenekin alderatuz gero, egoera hobea dela nabarmen ikus daiteke. Hobekuntza inplikaturako eragile guztien kontzientziario eta ahaleginari esker izan da.

#### 3.3.1. Hondakinen sorrera

1994 Planean, 2000. urtean 264.227 tona hondakin sortuko zela aurreikusi zen. Hortik gorakoa izan zen hazkundera eta 286.237 t/u sortu ziren 1998an; hau da, ekoizpenak izandako hazkundera (% 25) baino askoz ere txikiagoa izan zen portzentajea. Beraz, Planean proposatutako minimizazio-neurriek emaitza positiboak ekarri zituztela erakusten du horrek.

■ INDUSTRIA-EKOIZPENA BAINO GUTXIAGO HANDITU DA HONDAKIN ARRISKUTSUEN SORRERA ■

Aurreikuspenekiko aldean azterketa zehatzagoak, berriz, honakoa adierazten du:

- Hondakin-multzo berriak zenbatu dira (3.000 t/u) eta aurreikuspenak gainditu dira lohi koipetsuei (4.000

8. Ikus 6. oharra.

to a lodos aceitosos (4.000 t/a), residuos de procesos químicos (6.000 t/a), equipos de desecho (2.800 t/a) y residuos de instalaciones de tratamiento (7.000 t/a). El resto corresponde a pequeñas variaciones en otras corrientes.

- Por otra parte, la generación de algunas corrientes de residuos ha sido menor que la prevista, como es el caso de los aceites residuales de sentinas (4.500 t/a) y otras corrientes menores.

### 3.3.2. Gestión de residuos

Respecto a los objetivos de valorización establecidos en el Plan 1994, es necesario reconocer que no se ha alcanzado el 46%, limitándose la cantidad de residuos valorizados a un 31,5%. No obstante, esta diferencia viene determinada por la corriente de residuos polvos de acería que han sido gestionados en su totalidad mediante tratamiento de inertización y depósito en vertedero específico. Los objetivos del Plan 1994 para esta corriente preveían la valorización de aquellos polvos que superaban el 15% de contenido en cinc.

En lo que al resto de corrientes de residuos respecta, se ha superado el porcentaje previsto para ellas de valorización (desde un 39,3% hasta el 44,5%), lo cual supone una valorización de casi 10.000 t/a más de las previstas.

### 3.3.3. Desarrollo de infraestructuras

■ SE HAN DESARROLLADO LOS  
OBJETIVOS DE LAS  
INFRAESTRUCTURAS CLAVE PARA  
LAS NECESIDADES ESTABLECIDAS ■

Para dar respuesta a la gestión de los residuos peligrosos durante el periodo de vigencia del Plan 1994, se han desarrollado las siguientes infraestructuras:

- Ampliación de las plantas de tratamiento de los gestores, para inertizar sus residuos (34.800 t/a) y centros de transferencia.
- Celdas de seguridad para tierras contaminadas con HCH.
- Planta para el tratamiento de aceites usados, reciclado de disolventes y taladrinas.
- Planta de inertización de polvos de acería (100.000 t/a), y vertedero para estos inertizados (110.000 T/año).
- Vertedero para tortas de gestor inertizadas (34.000 T/año).
- Planta de declaración catalítica (BCD), para el tratamiento del lindane (1 T/h).
- Planta de transformación del ácido clorhídrico de decapado en floculante (25.000 t/a).
- Planta de recuperación de metales a partir de pilas botón (1 t/a).

t/u), prozesu kimikoen hondakinei (6.000 t/u), hondakin-ekipoei (2.800 t/u) eta tratamendu-instalazio-etako hondakinei dagokienez (7.000 t/u). Beste multzo batzuetako aldaketa txikiei dagozkie gainerakoak.

de residuos, como la prohibición de mezclar diferentes categorías de residuos peligrosos o de estos con residuos no peligrosos, los requisitos para la autorización de establecimientos encargados del tratamiento de residuos peligrosos, y previsiones en relación con el etiquetado y envasado de los mismos.

La Directiva 1999/31/CE, de 26 de abril de 1999, relativa al vertido de residuos, tiene por objeto establecer, mediante rigurosos requisitos técnicos y operativos sobre residuos y vertidos, medidas, procedimientos y orientaciones para impedir o reducir, en la medida de lo posible, los efectos negativos en el medio ambiente del vertido de residuos así como cualquier riesgo derivado para la salud humana durante todo el ciclo de vida del vertedero.

■ EL PRECIO DEL VERTIDO DEBE  
CUBRIR TODOS LOS COSTES DE  
EXPLOTACIÓN INCLUIDO EL  
MANTENIMIENTO  
"POST-CLAUSURA" ■

La Directiva determina que los Estados Miembros tomarán las medidas oportunas para garantizar que todos los costes que ocasionen el establecimiento y la explotación del vertedero, así como los costes derivados del cierre y mantenimiento posterior del emplazamiento durante al menos 30 años, queden cubiertos por el precio que cobre la entidad explotadora por la eliminación de cualquier tipo de residuos en dicho vertedero.

El Reglamento del Consejo 259/93/CEE, de 1 de febrero, sobre la supervisión y el control del transporte de residuos desde, dentro de, y hacia la Unión Europea, basado en la Convención de Basilea de las Naciones Unidas, establece una serie de disposiciones aplicables a la supervisión y el control del transporte de residuos para su recuperación o su destrucción.

En referencia a la legislación adoptada hasta el momento para ciertos tipos de residuos cuya cantidad y/o potencial de peligrosidad para el medio ambiente ha hecho necesaria la elaboración de medidas específicas, cabe citar las siguientes:

- La Directiva del Consejo 75/439, de 16 de junio, modificada por la Directiva del Consejo 87/101, de 12 de diciembre establece medidas para asegurar que los aceites usados son recogidos y destruidos sin causar daños a la salud pública y el medio ambiente dando prioridad a la regeneración de aceites usados frente a otras opciones de gestión.

■ ACEITES USADOS ■

- La Directiva del Consejo 91/157/CEE, de 18 de marzo, sobre pilas y acumuladores que contengan ciertas sustancias peligrosas, tiene por objeto la armonización de las medidas de los Estados Miembros para la recuperación y destrucción controlada de pilas y acu-

riak hondakin ez-arriskutsuekin nahasteko debekua, hondakin arriskutsuen tratamendurako instalazioak baimentzeko betekizunak eta haien etiketatze zein ontzirtzeari dagozkien aurrezikuspenak.

1999ko apirilaren 26ko 1999/31/EE Arzteztarauak, hondakinak zaborteagiratzeari buruzkoak, honakoa du helburu: hondakinak zaborteagiratzeak ingurumenean edo gizakien osasunean eragiten dituen ondorio kaltegarriak saihesteko edo ahalik eta gehien gutxitzeko neurriak, prozedurak eta orientabideak finkatzea -isurketen eta zaborteagiratzeen gaineko baldintza tekniko eta operatibo zorrotzak ezarriz- zaborteigiaren bizitza-ziklo osorako.

■ ZABORTEGIRATZEAREN PREZIOAK  
USTIAPENAREN KOSTU GUZTIAK  
ORDAINDU BEHAR DITU,  
ZABORTEGIA ITXI ONDORENGO  
MANTENTZE-LANENA ERE BARNE ■

Arzteztarauak agintzen du EBko kide diren estatuek hartu beharreko neurriak hartu behar dituztela zaborteigia egiteak eta ustiatzeak dakartzaten kostuak -baita hura itxi eta gero gutxienez 30 urtez haren mantentze-lanak dakartzatenak ere- zaborteigi hartan edozein zabor-mota ezabatzeagatik erakunde ustiatzaileak kobratzen duen prezioak ordainduko dituela bermatzeko.

Otsailaren 1eko Kontseiluaren 259/93/EEE Araudiak -Europako Batasunetik, Batasun barruan eta Batasunera hondakinen garraiatzearen kontrol eta jarraipenari buruzkoa-, Nazio Batuen Basileako Hitzarmenean oinarritua, hainbat xedapen finkatzen ditu berreskuratu edo suntsitu behar diren hondakinen garraiatzearen ikuskapen eta kontrolari buruz.

Kantitatea edota ingurumenerako duten arriskugarritasun-potenziala direla-eta, neurri espezifikokoak hartzea eskatzen zuten hondakinei dagokienez, honako arau hauek dira aipatzekoak:

- Ekainaren 16ko Kontseiluaren 75/439 Arzteztarauak -abenduaren 12ko Kontseiluaren 87/101 Arzteztarauak aldatua- neurriak finkatzen ditu olio erabiliak osasun publikoari eta ingurumenari kalterik egin gabe biltze eta suntsitzen direla ziurtatzeko, eta lehentasuna ematen dio olio erabilien birsorkuntzari beste kudeaketa-sistema batzuekiko.

■ OLIO ERABILIAK ■

- 18ko Kontseiluaren 91/157/EEE Arzteztarauak -substantzia arriskutsu jakin batzuk dauzkaten pila eta metagailuei buruzkoa- honakoa du helburutzat: halako muga batzuetatik gora merkurioa edo kadmioa duten pila edo metagailuen berreskuratze eta suntsi-

muladores usados que contengan mercurio o cadmio por encima de unos límites fijados.

#### ■ PILAS Y BATERÍAS ■

- *La Directiva del Consejo 96/59/CEE, de 16 de septiembre*, relativa a la eliminación de PCBs y PCTs define las medidas que los Estados Miembros deben adoptar para garantizar la destrucción controlada, la descontaminación o eliminación de los aparatos que contengan PCB y la eliminación de PCB usados de forma respetuosa con el medio ambiente.

#### ■ PCBs Y PCTs ■

- *La Directiva 2000/53/CE, de 18 de septiembre, relativa a los vehículos al final de su vida útil*, establece medidas destinadas, con carácter prioritario, a la prevención de los residuos procedentes de vehículos y, adicionalmente, a la reutilización, reciclaje y otras formas de valorización de los vehículos al final de su vida útil y sus componentes. El objetivo es reducir la eliminación de residuos y mejorar la eficacia de la protección medioambiental de todos los agentes económicos que intervienen en el ciclo de vida de los vehículos, y más concretamente de aquellos que intervengan directamente en el tratamiento de los vehículos al final de su vida útil.

#### ■ VEHÍCULOS AL FINAL DE SU VIDA ÚTIL ■

*La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco* establece los principios que inspiran la política de la Comunidad Autónoma en materia de residuos y que, enumerados por orden jerárquico son los siguientes:

#### ■ PRINCIPIOS COINCIDENTES CON LA ESTRATEGIA EUROPEA PARA LOS RESIDUOS ■

- a) Prevención y minimización en origen, reduciendo la productividad y nocividad.
- b) Incentivación de la reutilización, reciclado y cualesquiera otras formas de valorización y cierre de ciclos.
- c) Eliminación adecuada de los residuos que no puedan valorizarse e implantación de los medios necesarios para su correcta gestión.

Con el fin de hacer efectivos los principios citados, la Ley dispone que las Administraciones públicas elaborarán planes de residuos que contendrán, entre otras, especificaciones relativas a objetivos a cumplimentar, estrategias a desarrollar, creación de infraestructuras y sistemas de financiación.

tze kontrolaturako EBko kide diren estatuek dituzten neurrien harmonizazioa.

#### ■ PILAK ETA BATERIAK ■

- *Irailaren 16ko Kontseiluaren 96/59/EEE Arteztarauak* -PCB eta PCTen ezabatzeari buruzkoa- honako zehaztatzen du: PCB daukaten aparatuen suntsipen kontrolatua, deskontaminazioa edo ezabapena eta ingurumenarekiko begiramenaz erabili diren PCBen ezabapena bermatzeko EBko kide diren estatuek hartu beharreko neurriak.

#### ■ PCBak eta PCTak ■

- *Irailaren 18ko 2000/53/EE Arteztarauak* -balio-bizitzaren amaierara heldu diren ibilgailuei buruzkoa- ibilgailuen hondakinen prebentziorako neurriak finkatzen ditu, batik bat, baita, osagarri gisara, balio-bizitzaren amaierara heldu diren ibilgailuen eta horien osagaien berrerabilpen, birziklapen eta bestelako balorizazio-sistemetak neurriak ere. Hondakinen ezabatzea gutxitzea da helburua, baita ibilgailuaren bizitza-zikloan esku hartzen duten ekonomia-eragile guztien ingurumen-babesaren eraginkortasuna hobetzea ere, batez ere balio-bizitzaren amaieran ibilgailuaren tratamenduan esku hartzen dutenena.

#### ■ BALIO-BIZITZAREN AMAIERARA HELDU DIREN IBILGAILUAK ■

*Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak* -Euskal Herriko Ingu-  
*rugiroa Babesteko Orokorra*-, finkatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin-politikaren ardatz nagusiak. Honako hauek, ordena hierarkikoan azalduta:

#### ■ HONDAKINETARAKO EUROPAKO ESTRATEGIAREKIN BAT DATOZEN PRINTZIBIOAK ■

- a) Jatorrian bertan egitea hondakinen prebentzio eta minimizazioa, produktibitatea eta kaltegarritasuna gutxituz.
- b) Berrerabilpena, birziklapena eta bestelako edozein balorizazio-era eta ziklo-amaiera sustatzea.
- c) Balorizatzerik ez dagoen hondakinen ezabatze egokia eta haien kudeaketa egokirako behar diren baliabideak jartzea.

Aipatu printzipioak gauzatu ahal izateko Legeak agintzen du Administrazio publikoek hondakin-planak prestatu behar dituztela. Honako osagai hauek, besteak beste, izan behar dituzte plan horiek: lortu beharreko helburuei buruzko xehetasunak, garatu beharreko estrategiak eta azpiegiturak eta finantzazio-sistemak sortzea.



Los planes deberán contener pronunciamientos expresos sobre vinculación y rango, así como su duración y vigencia, que deberán acomodarse a los ciclos y actividades económicas industriales, al objeto de garantizar la deseable estabilidad y la eficacia de la planificación.

■ LAS ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS ELABORARÁN PLANES DE  
RESIDUOS ■

Asimismo la citada Ley dispone que con el fin de dar cumplimiento a los principios enumerados, en materia de residuos peligrosos y otras tipologías de residuos las Administraciones públicas competentes desarrollarán acciones dirigidas a impulsar la introducción de tecnologías limpias, la suficiencia y proximidad de las infraestructuras de gestión de los residuos peligrosos que se generen en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el fomento de la multiplicidad y flexibilidad de soluciones para las distintas corrientes de residuos peligrosos.

La Ley 10/1998, de 21 de Abril, de Residuos, siguiendo el criterio de la normativa comunitaria, tiene por objeto la prevención de la producción de residuos, estableciendo el régimen jurídico de su producción y gestión, fomentando, por este orden, su reducción, su reutilización, reciclado y otras formas de valorización.

La Ley establece que corresponderá a la Comunidades Autónomas, además de la autorización, vigilancia, inspección y sanción de las actividades de producción y gestión de residuos, la elaboración de planes autonómicos de residuos que fijarán los objetivos específicos de reducción, reutilización, reciclado, otras formas de valorización y eliminación; las medidas para conseguir dichos objetivos; los medios de financiación y el procedimiento de revisión de los planes.

Dichos planes incluirán, también, la cantidad de residuos producidos y la estimación de los costes de las operaciones de prevención, valorización y eliminación, así como los lugares e instalaciones apropiados para la eliminación de los residuos.

Lotura, maila eta iraunaldiari buruzko erabaki zehatzak izan behar dituzte planek, eta ekonomia zein industriaren jarduera eta zikloi egokitu behar zaizkie, planifikazioaren egonkortasuna eta eraginkortasuna bermatzearen.

■ HONDAKIN-PLANAK EGIN BEHAR  
DITUZTE ADMINISTRAZIO  
PUBLIKOEK ■

Halaber, aipatu Legeak dio teknologia garbiak, Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren hondakin arriskuak kudeatzeko azpiegituren hurbiltasuna eta autosufizientzia eta hondakin arriskutsu multzo guztientzako aniztasuna eta malgutasuna bultzatzeko ekimenak garatu beharra daukatela Administrazio Publikoek -hondakin arriskutsuen eta beste gai batzuen alorrean- aipatu printzipioak gauzatu ahal izateko.

*Apirilaren 21eko 10/1998 Legeak -Hondakinei buruzkoa-* honakoa du helburu: hondakinen sorreraren prebentzioa, haiek ekoizteko eta kudeatzeko erregimen juridikoa ezarriz eta haien murriztea, berrerabilpena, birziklapena eta bestelako balorizazio-moduak sustatuz -aipatutako ordena berean- Europako Erkidegoaren araudiaren irizpideari jarraiki.

Legeak agintzen du autonomia erkidegoei dagokiela -hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-jarduerak baimentzeaz, zaintzeaz, ikuskatzeaz eta zigortzeaz gain- erkidego mailako hondakin-planak eratzea. Plan horietan zehaztu behar dira hondakinen murrizte-, berrerabiltze- eta birziklatze-helburuak, bestelako balorizazio- eta ezabatze-erak, helburu horiek lortzeko neurriak, finantzazio-baliabideak eta planak berrikusteko prozedura.

Honako zehazpen hauek ere izan behar dituzte aipatu planek: sortutako hondakin-kantitatea, prebentzio-, balorizazio- eta ezabatze-eragiketen kostuen kalkulua, baita hondakinak ezabatzeko leku eta instalazio egoiak ere.

## ANEXO II

## II. GEHIGARRIA

# Inventario de residuos peligrosos

## Hondakin arriskutsuen inbentarioa

**E**l inventario de residuos peligrosos de 1998 se ha elaborado analizando en profundidad los documentos de control y seguimiento de todos los envíos de residuos peligrosos efectuados en ese año, incluidos los documentos B de los aceites residuales, y la información sobre importaciones y exportaciones de residuos peligrosos. Se ha recogido también la información de las memorias anuales de los gestores y autogestores.

El análisis de los datos ha requerido un esfuerzo en cuanto a la homogeneización en los criterios de clasificación de residuos según los nuevos códigos CER y a la eliminación de la doble contabilidad que suponen los centros de transferencia.

### Generación de residuos

■ **LOS RESIDUOS PELIGROSOS DE LA INDUSTRIA DEL HIERRO, EL ACERO, DEL ALUMINIO Y LOS RESIDUOS DE LOS TRATAMIENTOS DE SUPERFICIES SON LAS CORRIENTES DE RESIDUOS MAYORITARIAS** ■

En 1998 se contabilizaron 286.237 t de residuos peligrosos, de las que 196.091 t (68,5%) se eliminaron (68,2% mediante depósito en vertedero y 0,3% mediante incineración sin recuperación de energía) y 90.146 t (31,5%) se valorizaron (28,6% mediante reciclaje y 2,9% mediante valorización energética).

### Destino de los residuos

El análisis del destino geográfico de los residuos peligrosos nos da una idea del cumplimiento del principio de proximidad. El análisis del porqué los residuos se tratan en otras comunidades autónomas o en el extranjero nos da una idea del cumplimiento del principio de autosuficiencia.

*Para la eliminación (tratamiento físico-químico y/o vertedero), de las 24.1418 t/a gestionadas fuera de la Comu-*

**1** 998ko inbentarioa egiteko zorrotz aztertu dira urte hartako hondakin arriskutsuen igorpen guztien kontrol- eta jarraipen-dokumentuak -hondar-olioei dagozkien B dokumentuak ere barne direla-, baita hondakin arriskutsuen inportazio eta esportazioei buruzko informazioa ere. Kudeatzaileen eta autokudeatzaileen urteko txostenen informazioa ere erabili da.

Ahalegin berezia egin behar izan da hondakinak sailkatzeko irizpideak EHK-kode berrien arabera homogeneizatzeko eta transferentzia-zentroek eragiten duten kontabilitate bikoitza ezabatzeke.

### Hondakinen sorrera

■ **BURDINA, ALTZAIRU ETA ALUMINIOAREN INDUSTRIAREN HONDAKIN ARRISKUTSUAK ETA GAINAZALEN TRATAMENDUETAKOAK, HORIEK DIRA HONDAKIN-MULTZO NAGUSIAK** ■

286.237 tona hondakin arriskutsu zenbatu ziren 1998an eta horietarik 196.091 tona (% 68,5) ezabatu ziren (% 68,2 zabortegiratu eta % 0,3 erraustu egin ziren energiari berreskuratu gabe), eta 90.146 tona (% 31,5) balorizatu egin ziren (% 28,6 birziklatuz eta % 2,9 energia birbalorizatuz).

### Hondakinen akabera

Hondakin arriskutsuak nora eramaten diren aztertzeak adierazten digu zenbateraino betetzen den hurbiltasun-printzipioa. Bestalde, hondakinak beste autonomia erkidego batzuetan, edo atzerrian, zergatik tratatzen diren aztertzeak adierazten digu zenbateraino betetzen den autosufizientzia-printzipioa.

*Ezabapenari (tratamendu fisiko/kimikoa edota zabortegiratzea) dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegotik*


**Tabla 3.** Gestión de los residuos peligrosos generados en la CAPV - 1998.

Categoría de residuo	TOTAL (T)	VALORIZACIÓN (T)	ELIMINACIÓN (T)	Hondakin-mota
CER 02. Residuos de la producción primaria	485	0	485	02 EHK. Lehen sektorearen ekoizpeneko hondakinak
CER 03. Residuos de la madera, papel y muebles	44	0	44	03 EHK. Zur, paper eta altzarien hondakinak
CER 04. Residuos de la industria textil, cuero y piel	5	0	5	04 EHK. Oihalgintza eta larrugintzako hondakinak
CER 05. Residuos del refinado del petróleo, gas natural y carbón	12.840	6.489	6.351	05 EHK. Petrolioa, gas naturala eta ikatza finitzearen hondakinak
CER 06. Residuos de procesos químicos inorgánicos	7.788	103	7.685	06 EHK. Prozesu kimiko ez-organikoetako hondakinak
CER 07. Residuos de procesos químicos orgánicos	11.046	58	10.988	07 EHK. Prozesu kimiko organikoetako hondakinak
CER 08. Residuos de la FFDU de revestimientos, pegamentos...	2.444	314	2.130	08 EHK. Estalgarri, itsasgarri eta abarren FFBEn hondakinak
CER 09. Residuos de la industria fotográfica	491	164	327	09 EHK. Fotografia-industriaren hondakinak
CER 10. Residuos inorgánicos de procesos térmicos	126.876	43.461	83.415	10 EHK. Prozesu termikoetako hondakin ez-organikoak
CER 11. Residuos inorgánicos con metales y de la metalurgia	81.574	26.717	54.857	11 EHK. Metalen hondakin ez-organikoak, eta metalurgiakoak
CER 12. Residuos de tratamiento de superficies	15.511	929	14.582	12 EHK. Gainazalen tratamenduetako hondakinak
CER 13. Residuos de aceite	11.783	8.061	3.722	13 EHK. Olioen hondakinak
CER 14. Residuos de disolventes	1.541	1.098	443	14 EHK. Disolbatzaileen hondakinak
CER 15. Residuos de envases y absorbentes	1.106	323	783	15 EHK. Ontzi eta xurgatzaileen hondakinak
CER 16. Residuos no especificados en otro lugar de la lista	4.276	2.288	1.988	16 EHK. Zerrendaren beste lekuren batean espezifikatu gabeko hondakinak
CER 17. Residuos de la construcción y demolición	503	0	503	17 EHK. Eraikuntza eta eraispenetako hondakinak
CER 18. Residuos de servicios médicos y veterinarios	727	0	727	18 EHK. Medikuntza- eta albaitaritzaz-zerbitzuetako hondakinak
CER 19. Residuos de instalaciones de tratamiento de residuos y aguas	7.180	125	7.055	19 EHK. Hondakinak eta urak tratatzeko instalazioetako hondakinak
CER 20. Residuos municipales y asimilables	17	16	1	20 EHK. Hiri-hondakinak eta horien parekagarri direnak
<b>TOTAL</b>	<b>286.237</b>	<b>90.146 (31,5%)</b>	<b>196.091 (68,5%)</b>	<b>GUZTIRA</b>
	<b>Guztira (t)</b>	<b>Balorizazioa (t)</b>	<b>Ezabapena (t)</b>	

Fuente: Inventario de Residuos Peligrosos 1998. / Iturria: Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa 1998.

**3 Taula.** EAEn sortzen diren hondakin arriskutsuen kudeaketa - 1998.

## Gestión de los residuos peligrosos generados en la CAPV - 1998



Fuente: Inventario de Residuos Peligrosos 1998. /  
Iturria: Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa 1998.

Valorización / Balorizazioa      Eliminación / Ezabapena

## EAEn sortzen diren hondakin arriskutsuen kudeaketa - 1998

nidad Autónoma del País Vasco, 11.516 t/a pertenecen al CER11-Residuos líquidos y lodos del tratamiento y revestimiento de metales, que representan el 47,7% y 3.740 t/a al CER12-Residuos del moldeado, que representan el 15,5%. Entre ambas cantidades alcanzan el 63,2% de los residuos exportados para su eliminación.

*En la valorización energética*, de las 3.713 t/a gestionadas fuera de la CAPV, 3.474 t/a pertenecen al CER13-Aceites, que representa el 93,6% de los residuos exportados para su valorización energética. Estos residuos podrían haberse gestionado dentro de la Comunidad, al existir infraestructuras para ello.

*En el reciclaje*, de las 40.343 t/a gestionadas fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 38.589 t/a perte-

kanpo kudeatutako 24.118 t/u-tik 11.516 t/u 11 EHKri dagozkio -hondakin likidoak eta metalen tratamendu eta estaldurako lohiak; %47,7a guztira- eta 12 EHKri 3.740 t/u -moldaketa-hondakinak; % 15,5a-. Ezabatzeko esportatzen diren hondakinak % 63,2a osatzen dute bi multzo horien artean.

*Balorizazio energetikoari dagokionez*, EAetik kanpo kudeatutako 3.713 t/u-tik 13 EHKri -olioak- dagozkio 3.474 t/u, hau da, energetikoki balorizatzen diren hondakinak % 93,6. EAEn bertan ere bazeagoen kudeatzea hondakin horiek, bai baitzegoen horretarako azpiegiturarik.

*Birziklaketan*, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo kudeatutako 40.343 t/u-tik 38.589 t/u EHK 10i

**Tabla 4.** Destino geográfico de los residuos peligrosos - 1998 (toneladas).

Eliminación F-Q + vertedero		Incineración		Valorización energética		Reciclaje		Total	
CAPV	No CAPV	CAPV	No CAPV	CAPV	No CAPV	CAPV	No CAPV	CAPV	No CAPV
171.089	24.118	254*	630	4.665	3.713	41.426	40.343	217.434	68.804
EAE	EAEtik kanpo	EAE	EAEtik kanpo	EAE	EAEtik kanpo	EAE	EAEtik kanpo	EAE	EAEtik kanpo
Ezabapena F-Q + zabortegiratzea		Erraustea		Balorizazio energetikoa		Birziklapena		Guztira	

Fuente: Inventario de Residuos Peligrosos 1998. / Iturria: Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa 1998.

\* Residuos sanitarios peligrosos / \* Osasun-hondakin arriskutsuak

#### 4 Taula. Hondakin arriskutsuak nora eramaten diren – 1998 (tonak).

necen al CER10-Residuos inorgánicos de procesos térmicos, y de ellas 29.585 t/a son escorias de la 2ª fusión del aluminio (para las que no existe capacidad de reciclaje en la Comunidad) y 3.864 t/a son otros residuos de la industria del aluminio, procediendo el resto de la industria del cinc y en menor medida del cobre, residuos estos últimos mayoritariamente exportados para su reciclaje.

#### Importación de residuos

En el apartado anterior se ha visto que un 24% de los residuos peligrosos (68.804 t/a) son gestionados fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Los gestores vascos también tratan residuos peligrosos procedentes de otras comunidades autónomas, de países de la Unión Europea y de Estados Unidos.

Se gestionan 142.321 t/a de residuos no generados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, de los cuales 49.292 t/a proceden de otras comunidades autónomas y 93.029 t/a vienen de otros países. La mayor parte de estos últimos corresponden a polvos de acería (88%), que se reciclan en nuestra Comunidad.

dagozkio –prozesu termikoetako hondakin ez-organikoak– eta horietarik 29.585 t/u aluminioaren bigarren galdaketako zepak dira (ez dago horiek birziklatzeko azpiegiturarik EAEn); 3.864 t/u, berriz, aluminioaren industriako beste hondakin batzuk dira, eta gainerakoak zinkaren industriak (gehienbat) eta kobrearenak sortuak; azken horiek birziklatzeko esportatzen dira batez ere.

#### Hondakinen inportazioa

Esana dugu aurreko atalean hondakin arriskutsuen % 24 (68.804 t/u) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo kudeatzen dituztela. EAEn kudeatzaileek ere, ordea, tratatzen dituzte Espainiako Estatuko beste autonomia erkidego batzuetatik, Europako Batasuneko herrialdeetatik eta Ameriketako Estatu Batuetatik ekarritako hondakin arriskutsuak.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sortutako 142.321 t/u kudeatzen dira EAEn, eta horietarik 49.292 t/u Espainiako Estatuko beste autonomia erkidego batzuetatik ekarriak dira; 93.029 t/u, berriz, beste estatu batzuetatik hona ekarritakoak. Altzairutegietako hautsak dira EAEn birziklatzen diren hondakin-multzo horien zatirik handiena (% 88).

## ANEXO III

## III. GEHIGARRIA

# Gestores de residuos peligrosos en la Comunidad Autónoma del País Vasco

## Hondakin arriskutsuen kudeatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan

**E**l análisis de las capacidades de gestión de residuos peligrosos en la Comunidad Autónoma del País Vasco se ha realizado a través de la identificación de los diferentes gestores, con los procesos autorizados y la capacidad de sus plantas.

No se han tenido en cuenta los gestores autorizados para operar en la Comunidad Autónoma del País Vasco pero que tienen la instalación de tratamiento en otra comunidad autónoma y tampoco se han considerado los centros de transferencia, puesto que se estima que su capacidad es variable dependiendo de la rotación que den a los residuos gestionados.

**K**udeatzaileak, horien instalazioen gaitasuna eta baimendutako prozesuak identifikatzea, hori izan da Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin arriskutsuen kudeatze-gaitasuna aztertze-ko erabilitako bidea.

Ez ditugu zerrenda honetara bildu Euskal Autonomia Erkidegoan jarduteko baimena daukaten baina tratamendu-instalazioa beste autonomia erkidego batean duten kudeatzaileak. Transferentzia-zentroak ere ez ditugu sartu zerrendan, horien gaitasuna aldakortzat -kudeatutako hondakinen txandaketaren arabera- jotzen baita.

**Tabla 5.** Capacidades de reciclaje de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Tipo de residuo	Capacidad	Gaitasuna	Hondakin-mota
Soluciones ácidas de decapado	36.000 t/a	36.000 t/u	Desugerketetako soluzio azidoak
Aceites y taladrinas	53.000 t/a	53.000 t/u	Olioak eta taladrinak
Disolventes	1.400 t/a	1.400 t/u	Disolbatzaileak
Pilas con mercurio	3 t/a	3 t/u	Merkuriodun pilak
Bidones metálicos	100.000 Ud./año	100.000 unit. urteko	Bidoi metalikoak
Polvos de acería	90.000 t/a	90.000 t/u	Altzairutegietako hautsak
Residuos de la termometalurgia del cobre	126.000 t/a	126.000 t/u	Kobrearen termometalurgiako hondakinak
Residuos de la termometalurgia del cinc	30.000 t/a	30.000 t/u	Zinkaren termometalurgiako hondakinak
Residuos de la termometalurgia del aluminio	70.000 t/a	70.000 t/u	Aluminioaren termometalurgiako hondakinak
Soluciones de revelado	125 t/a	125 t/u	Errebelatze-hondakinak
Aparatos eléctricos y electrónicos	30.000 t/a	30.000 t/u	Aparatu elektriko eta elektronikoak

Fuente: IHOBE. Catálogo de Recicladores.

Iturria: IHOBE. Birziklatzaileen katalogoa.

### 5 Taula. Euskal Autonomia Erkidegoaren birziklatze-gaitasunak.

## Recicladores

Ante las capacidades anteriores debemos tener en cuenta que algunas instalaciones no tratan únicamente residuos peligrosos (como por ejemplo las instalaciones de recuperación de metales).

## Tratadores-eliminadores

## Birziklatzaileak

Gaitasunez ari garenez, kontuan hartu beharrekoa da instalazio batzuek ez dituztela hondakin arriskutsuak soilik tratatzen -metalak berreskuratzen dituzten instalazioek, adibidez-.

## Tratatzaileak-ezabatzaileak

**Tabla 6.** Capacidades de tratamiento en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Tipo de residuo	Capacidad
Polvos de acería	100.000 t/a
Fangos con hidrocarburos, aceites, disolventes y lodos	73.000 t/a
Baños y tratamientos superficiales	100.000 t/a

Fuente: Datos de IHOBE y contactos con los tratadores.

Gaitasuna	Hondakin-mota
100.000 t/u	Altzairutegietako hautsak
73.000 t/u	Hidrokarburoak, olioak, disolbatzaileak eta lokatzak dituzte lohiak
100.000 t/u	Bainuak eta gainazalen tratamenduak

Iturria: IHOBEK eta hondakin-tratatzaileek emandako datuak.

## 6 Taula. Tratamendu-gaitasunak Euskal Autonomia Erkidegoan.

## ANEXO IV

# Monografías

Debido a su carácter de residuos emergentes, para el caso de tres corrientes de residuos, conocidas con el nombre de corrientes prioritarias de residuos, se han elaborado tres monografías que complementan el presente Plan de Residuos Peligrosos:

- Residuos de aparatos eléctricos y electrónicos
- Residuos de vehículos al final de su vida útil
- Residuos de la construcción y demolición

En estas monografías se analiza la situación de este tipo de residuos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, el estado de la técnica en cuanto a tratamiento y valorización de las citadas corrientes, las experiencias que se han llevado a cabo en otros países europeos y cómo puede abordarse el problema en nuestra Comunidad.

## IV. GEHIGARRIA

# Monografiak

Honako Hondakin Arriskutsuen Plan honen osagarri gisara hiru monografia prestatu ditugu, beste horrenbeste hondakin-multzori dagozkienak (lehentasunezko hondakin-multzoak deritze), kantitate handitan agertzen hasiak diren hondakinak baitira hirurak ere:

- Aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak
- Erabileraz kanpo dauden ibilgailuen hondakinak
- Eraikuntza eta eraispentako hondakinak

Honako gaiok aztertu dituzte hiru monografia horiek: hondakin-mota horien egoera Euskal Autonomia Erkidegoan, hondakin horiek tratatzeko eta balorizatzeo daude tekniken egoera, Europako beste herrialde batzuetako esperientziak eta nola ekin arazoari EAEn.

## ANEXO V

# Incentivos medioambientales en el impuesto de sociedades del País Vasco

	<b>MEDIDA</b>
Reserva para inversiones productivas	Deducción de la cuota líquida del 10% de las cantidades destinadas a Reserva para Actividades de Conservación y Mejora del Medio Ambiente o Ahorro Energético.
Conservación y mejora del medio ambiente o ahorro energético	Deducción de la cuota líquida del 15% de: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Inversiones en activo fijo material nuevo afectos directamente a la reducción y corrección del impacto contaminante de la actividad de la empresa.</li> <li>– Inversiones en activos fijos y los gastos incurridos en la limpieza de suelos contaminados para la realización de proyectos que hayan sido aprobados por organismos oficiales del País Vasco.</li> <li>– Adquisición de vehículos nuevos industriales o comerciales de transporte por carretera siempre que contribuyan de manera efectiva a la reducción de la contaminación atmosférica.</li> </ul>
Investigación científica y tecnológica	Reducción de la cuota del 15% de los gastos en actividades de innovación tecnológica referentes a la obtención del certificado de cumplimiento de las normas de aseguramiento de la calidad de la serie ISO 14000.
Libertad de amortización	Se permite al sujeto pasivo amortizar los activos en el plazo que considere oportuno cuando se trate de los siguientes bienes: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Activo fijo material nuevo que esté afecto a la reducción del impacto contaminante de la actividad desarrollada por la empresa.</li> <li>– Inmovilizado relacionado con la limpieza de suelos contaminados.</li> </ul> Los incentivos fiscales recogidos en la tabla son objeto de un comentario más pormenorizado en documento anexo.

Los incentivos fiscales recogidos en la tabla son objeto de un comentario más pormenorizado en documento anexo.



## V. GEHIGARRIA

# Ingurumen-pizgarriak EAE-ko sozietateen gaineko zergan

	NEURRIA
<b>Produkzio-inbertsioetarako erreserba</b>	Ingurumena Zaintzeko eta Hobetzeko edo Energia Aurrezteko Jardueretarako Erreserbara bideratzen diren zenbatekoen kuota likidoaren % 10eko kenketa.
<b>Ingurumena zaintzea eta hobetzea edo energia aurrezte</b>	Honako hauen kuota likidoaren % 15eko kenketa: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Enpresaren jardueraren poluzio-inpaktua gutxitzeko eta zuzentzeko espresuki aktibo finkotan/material berritan egindako inbertsioak.</li> <li>– Aktibo finkotan egindako inbertsioak eta EAEko erakunde ofizialek onartutako proiektuak gauzatzeko xedez poluitutako lurak garbitzeko eginiko gastuak.</li> <li>– Errepidezko garraiorako ibilgailu berriak (industrialak nahiz komertzialak) erostea, airearen poluzioa gutxitzen eraginkortasunez laguntzen badute betiere.</li> </ul>
<b>Ikerkuntza zientifiko eta teknologikoa</b>	ISO 14000 serieko kalitatea bermatzeko arauak betetzen direla egiaztatzen duen agiria eskuratzeko egin diren berrikuntza teknologikorako gastuen kuotaren % 15eko kenketa.
<b>Amortizazio-askatasuna</b>	Egoki deritzon epean ordaintzea aktiboak baimentzen zaio subjektu pasiboari honako ondasun hauei dagokienez: <ul style="list-style-type: none"> <li>* Enpresaren jarduerak eragindako poluzio-inpaktua gutxitzeari loturiko aktibo finkoa/material berria.</li> <li>* Lur poluituen garbiketari loturiko ibilgetua.</li> </ul> Taulan ageri diren pizgarri fiskalei buruzko informazio zabalagoa duzue txosten gehigarrian.

Taulan ageri diren pizgarri fiskalei buruzko informazio zabalagoa duzue txosten gehigarrian.

## ANEXO VI

# Resumen de objetivos principales

### RESIDUOS PELIGROSOS OBJETO DEL PLAN ANTERIOR

Objetivos	Objetivos Globales	Ácidos decapado	Residuos ind. del Petróleo	Envases	Polvos de acería*	Varios
Generación	Estabilizar la generación de residuos peligrosos en 290.000 t/a					
Reciclado	60% del total de residuos peligrosos generados	69% del total	90% del total	50% del total recogido	100% del total <sup>24</sup>	
Recogida selectiva						- Pilas: 900 t/a - Baterías 5.000 t/a - Fluores. 130 t/a
Objetivos específicos para PCB'S	- Inventariado de cantidades - Establecimiento de objetivos mínimos					

\* Excepto inoxidable.

### RESIDUOS EMERGENTES

Objetivos	Construcción y Demolición	Equipos Eléctricos y Electrónicos	Vehículos Fuera de Uso
Recogida selectiva y/o separación	30% del total generado: - Ladrillos, tejas, hormigón: 28.000 t/a - Madera: 12.000 t/a - Metales: 940 t/a - Plástico: 5.000 t/a	4 kg./h/a (8.400 t/a)	48.000 u/a
Reciclaje / reutilización	- Áridos secundarios: 28.000 t/a - Metales: 940 t/a	50-75% del peso de los aparatos según tipos <sup>25</sup>	- Chatarra férrea: 30.000 t/a - Metales no férreos: 1.600 t/a - Plásticos: 1.200 t/a
Valorización		70-80% del peso de los aparatos según tipos <sup>25</sup>	Fracción ligera: 42.000 t/a <sup>26</sup>

24. Objetivo a conseguir a más tardar el 31 de diciembre del 2007.

25. Plazo dependiente de la fecha de adopción de la Directiva (antes de 46 meses desde la fecha de adopción).

26. 10.000 t/a procedentes de los VFU generados en la CAPV y el resto de paquetes importados o recibidos de otras CA.

## VI. GEHIGARRIA

# Helburu nagusien laburpena

### AURREKO PLANAREN XEDE ZIREN HONDAKIN ARRISKUTSUAK

Helburuak	Helburu orokorrak	Desugerketako azidoak	Petrolioaren indus.-hondakinak	Ontziak	Altzairutegietako hautsak*	Zenbait
<b>Sorrera</b>	290.000 t/u-an egonkortzea hondakin arriskutsuen ekoizpena					
<b>Birziklapena</b>	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizkoaren % 60	Gutzizkoaren % 69a	Gutzizkoaren % 90a	Bildutako guztiaren % 50	Gutzizkoaren % 100 <sup>24</sup>	
<b>Gaikako bilketa</b>						- Pilak 900 t/u - Bateriak 5.000 t/u - Fluoresz. 130 t/u
<b>PCBetarako helburu espezifikoak</b>	- Kantitateen inbentarioa egitea - Gutxieneko helburuak finkatzea					

\* Herdoilgaitza izan ezik.

### AGERTZEN ARI DIREN HONDAKINAK

Helburuak	Eraikuntza- eta eraispin-lanak	Ekipo elektriko eta elektronikoak	Erabileraz kanpo dauden ibilgailuak
<b>Gaikako bilketa eta/edo bereizketa</b>	Sortutako guztizkoaren % 15a: - Adreiluak, teila, hormigoia: 14.000t/u - Zura: 6.000 t/u - Metalak: 470 t/u - Plastikoa: 2.500 t/u	4 kg./bikt./u (8.400 t/u)	48.000 unit./u
<b>Birziklapena</b>	- Agregakin sekundarioak: 28.000 t/u - Metalak: 940 t/u	Aparatuen pisuaren % 50tik - 75ra tipoaren arabera <sup>25</sup>	- Burdin txatarra: 30.000 t/u - Burdinarik ez duten metalak: 1.600 t/u - Plastikoa: 1.200 t/u
<b>Balorizazioa</b>		Aparatuen pisuaren % 70-80, tipoaren arabera <sup>25</sup>	Frakzio arina: 42.000 t/u <sup>26</sup>

24. 2007ko abenduaren 31 baino lehenago lortzeko helburua.

25. Directiva indarrean sartuko dan dataren arabera (data honetatik 46 hilabete baino lehenago).

26. 10.000 t/u, EAE sortutako EKiei dagozkienak, eta gainerakoak Espainiako Estatuko beste autonomia erkidego batzuetatik ekarritako hondakin-multzoiei dagozkienak.

## Indicadores de seguimiento

### Segimendua egiteko adierazleak

La "Evaluación Estratégica Ambiental" a la que ha sido sometido el Plan de Gestión de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco ha dado como resultado la resolución de 26 de mayo de 2003, del Viceconsejero de Ordenación del Territorio y Biodiversidad por la que se formula la Evaluación Ambiental.

Dicha resolución establece como medida correctora (apartado 6.2) la definición de indicadores, tanto para los objetivos no cuantificados como para los instrumentos que desarrollan directamente algunos principios del propio Plan, asegurando de esta manera al menos, la medición de la evolución del Plan en aquellos aspectos no directamente cuantificados en su definición.

El Sistema de Información y Control del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, posibilita la obtención y análisis de la información tanto de carácter cuantitativo como cualitativo en materia de gestión de residuos peligrosos.

Los objetivos del Plan de Gestión de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2003 – 2006, se expresan de forma cuantificada en el anteriormente indicado Sistema de Información General lo que posibilita el seguimiento del Plan.

Dicho Sistema, igualmente recoge información relativa a objetivos no cuantificados y acciones ligadas a los mismos y propuestos en el Plan.

Con el fin poder realizar un seguimiento adecuado de este tipo de objetivos y acciones ligadas a los mismos a lo largo del periodo de vigencia del Plan, y dando respuesta de este modo a la propuesta de mejora que en la Resolución de 26 de mayo de 2003 se establece como medida correctora, se definen a continuación **los indicadores de seguimiento** del Plan de Gestión de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2003 – 2006.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa Planari "Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa" egin zaio, eta Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitateko sailburordearen 2003ko maiatzaren 26ko ebazpena izan da horren ondorio; hain zuzen, Ingurumen Ebaluazioa formulatzen duen ebazpena.

Ebazpen horrek adierazleen definizioa sartu du neurri zuzentzaile gisa (6.2 atala), bai kuantifikatu gabeko helburuentzat eta bai Planaren beraren printzipio batzuk zuzenean garatzen dituzten tresnentzat. Horrela, gutxienez, beren definizioan zuzenean kuantifikatu ez diren alderdiei dagokienez, Planaren ebaluazioaren neurketa bermatuko da.

Eusko Jauriaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Informazio eta Kontrol Sistemak hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko informazioa –kuantitatiboa eta kualitatiboa– lortzeko eta analizatzeko aukera ematen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen 2003-2006ko Kudeaketa Planaren helburuak kuantifikatuta daude lehenago aipatutako Informazio Orokorreko Sisteman. Horri esker, Planaren segimendua egin daiteke.

Sistema horrek, bestalde, Planean proposatutako eta kuantifikatu gabeko helburuei eta horiekin zerikusia duten ekintzei buruzko informazioa ere biltzen du.

Plana indarrean dagoen bitartean helburu-mota horren eta horiekin zerikusia duten ekintzen segimendua egin ahal izateko eta 2003ko maiatzaren 26ko Ebazpenean neurri zuzentzaile gisa jasotzen den hobekuntza-proposamenari erantzuteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen 2002-2006ko Kudeaketa Planaren **segimendua egiteko adierazleak definitu** dira.

Principios del Plan 2003	Objetivos	Instrumentos	Indicadores
Cautela y Acción Preventiva	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Recogida Selectiva</li> <li>- Demolición Selectiva</li> <li>- Disminución de Vertido</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- % sobre residuos generados</li> <li>- % de demoliciones selectivas sobre el total</li> <li>- % de residuos vertido sobre total generado</li> </ul>
Corrección de afecciones al medio	Vertido permitido sólo para residuos tratados	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Producción limpia</li> <li>- Mejora en la calidad de la gestión</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Residuo/unidad de producción: ton/VABind</li> <li>- Nº de gestores certificados</li> <li>- Nº de vertederos que cumplen con la exigencia</li> </ul>
Aplicación de instrumentos económicos		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Revisión normativa</li> <li>- Desarrollo nueva legislación sobre corrientes emergentes</li> <li>- Dotación de medios humanos en la Administración Ambiental</li> <li>- Inspección y seguimiento del cumplimiento</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Normas revisadas</li> <li>- Grado de Cobertura legislativa residuos emergentes</li> <li>- SI/NO</li> <li>- Informe anual</li> </ul>
Contratación Pública "verde"	Compra de material reciclado por la administración		Volumen compra material reciclado en €
Normalización de subproductos		Participación en comités CEN/AENOR	Nº comités de residuos participados
Responsabilidad compartida		Firma de Acuerdos Voluntarios	Nº sectores/empresas incluidos en acuerdos

2003ko Planaren Printzipioak	Helburuak	Tresnak	Adierazleak
Zuhurtzia eta Prebentzio Ekintza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaikako bilketa</li> <li>- Gaikako eraispena</li> <li>- Isurketak gutxitzea</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sortutako hondakinen %</li> <li>- Gaikako eraispenen %, eraispen guztiak kontuan hartuta</li> <li>- Botatako hondakinen %, sortutakoen guztizkoa kontuan hartuta</li> </ul>
Ingurumen-eraginen zuzenketa	Tratatutako hondakinen isurketa bakarrik baimentzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produkzio garbia</li> <li>- Kudeaketaren kalitatea hobetzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hondakina/produkzio-unitatea: tona/BEG ind.</li> <li>- Ziurtagiridun kudeatzaile-kop</li> <li>- Betebeharrak betetzen dituzten hondakindegien kop.</li> </ul>
Ekonomia-tresnen aplikazioa		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Araudia berrikustea</li> <li>- Sortzen ari diren korronteei buruzko legeria berria garatzea</li> <li>- Ingurumen Administrazioa giza baliabidez hornitzea</li> <li>- Betezte-maila ikuskatu eta horren segimendua egitea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berrikusitako arauak</li> <li>- Sortzen ari diren hondakinen lege aldetiko estaldura-maila</li> <li>- BAI/EZ</li> <li>- Urteko txostena</li> </ul>
Kontratazio publiko "berdea"	Administrazioak material birziklatua erostea		Erositako birziklatutako materialaren bolumena €-tan
Azpiproduktuen normalizazioa		CEN/AENOR batzordeetan parte hartzea	Parte hartzen den hondakin-batzordeen kop.
Partekatutako ardura		Borondatezko akordioak sinatzea	Akordioetan sartutako sektoreen/enpresen kop.





*aurrera doan* **herria**

**un país** *en marcha*

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LURRALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAIA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL  
TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE